

- **Aktiboa:** ondarearen baliokidea da. Enpresaren jabetzakoak diren eta diru-balioa duten ondasun eta eskubideen multzoa da. Ondasun materialak izan daitezke (ekipamenduak, higiezinak, makinak eta abar), edo immaterialak (finantza-aktiboak, patenteak, markak eta abar).
- **Amortizazioa:** bi adiera ditu: mailegu edo zor baten zenbatekoa pixkanaka murriztea edo azkentzea, edo inbertitutako funtsak berreskuratzea edo konpentsatzea.
- **Arriskua:** enpresaren errentagarritasunerako negatiboa izan daitekeen egoera bat gertatzeko aukera.
- **Balantzea:** data jakin bateko ekonomia-eta ondare-egoera islatzen duen kontabilitate-eta finantza-dokumentua. Hiru zati ditu: aktiboak, pasiboak eta kapitala (edo ondare garbia).
- **BEZa:** ogasunari ordaindu beharreko zerga bat da. Hiru BEZ-mota daude: super murriztua (% 4), murriztua (% 10) eta orokorra (% 21)
- **Cash flow-a** (kutxako fluxua): enpresa batek irabaziak sortzeko eta ordainketa guztiei aurre egiteko duen gaitasuna neurtzen duen adierazlea. Eragiketa baten hasierako eta amaierako diru-kantitatearen aldea.
- **Emaitza-kontua (galdu-irabaziak):** diru-sarrerak nondik datozten eta gastuak non sortzen diren adierazten du, eta finkaturiko aldian izandako irabazi edo galera garbia erakusten.
- **Errentagarritasuna:** negozioak irabaziak lortzeko duen gaitasuna. Kostuak eta mozkinak hartzen ditu kontuan.
- **Erreserbak:** enpresa baten mozkinaren zati bat, dibidenduak —enpresak sorturiko mozkinetatik bazkideen edo akziodunen artean banatzen den zatia— eta zergak ordaintzera bideratzen ez dena, eta baliabide propio gisa uzten dena, ezustekoetarako eta kaudimen-maila handitzeko.

- **Fakturazioa:** fakturazioa zure enpresak aldi jakin batean egin dituen salmenten guztizkoa da, salmenta horietatik eratorritako kostuak kendu gabe kalkulatu. Kontuz! Fakturazioa ez da mozkin garbiaren sinonimoa —fakturazioko sarrerak ken gastu guztiak—, ezta kutxako fluxuarena edo cash flowarena ere —enpresaren gastuei aurre egiteko eskura duzun dirua—.
- **Hartzekodun:** ordaintzeko dagoen zor bat hartu dugun pertsona fisiko edo juridiko oro.
- **Hazi-kapitala edo speed kapitala:** negozio bat hastean, enpresaren kapitalean partaidetza izatearen truke erabiltzen den hasierako kapitala da. Sarritan familiarrek edo lagunek (FFF: family, friends and fools) jartzen dute kapital hori. Mota horretako finantzaketa honela lortu ohi da.
- **Ibilgetua:** enpresaren aktiboaren parte den elementu bat da eta honako hauek izan daitezke: finantzarioa (kapitaleko inbertsioak, gordailuak, etab.), materiala (enpresaren jabetzako elementu ukigarriak, lurrak, ekipo-ondasunak, makineria, etab.), edo immateriala (patente edo administrazio-emakida gisako ondasun baten bidez erakusten diren inbertsio iraunkorrak)
- **Jasandako BEZa:** produktu edo zerbitzu bat erostean enpresak ordaintzen duen balioa da.
- **Jasanarazitako BEZa:** produktuak saltzeagatik edo zerbitzuak emateagatik enpresak bezeroei kobratzen dien balioa da.
- **Kapital Soziala:** bazkideek erakunde edo enpresa bati ematen dizkioten finantza-baliabideak dira. Dirua izan daiteke, edo balio ekonomikoa duten beste ondasun eta ondare-eskubide batzuk.
- **Kontabilitate-kapitala:** enpresaren aktiboen eta pasiboen arteko aldea da.
- **Leasinga** (finantza-errentamendua): erosi gabe aktibo bat (autoa, makinak eta abar) erabiltzeko aukera ematen du. Hilero

ordaindu beharreko alokairu-kuota bat izan ohi du, eta, denboraldi bat igarotakoan, nahi izanez gero, erosteko aukera erabil daiteke.

- **Likidezia:** negozioak efektibo sortzeko duen gaitasuna.
- **Pasiboa:** enpresak bere aktiboa ordaintzeko erabiltzen dituen zorrak eta obligazioak —egin beharreko ordainketak, epe luze-ko zorrak—.
- **Porrota:** pasiboa aktiboa baino askoz handiagoa da etengabe, eta enpresak ezin die bere zorrei aurre egin.
- **Prezio gordina:** oinarrizko prezio zergapegarria da. Enpresaburuak zehazten duen prezioa, kostuak estaltzeko eta negozioa jasangarri egiteko behar besteko irabazi-marjina lortzeko, BEZa eta gainerako zergak aplikatu gabe.
- **Prezio garbia:** produktuaren azken salmenta prezioa da, zergak eta abar barne dituena.
- **Publikoarentzako salmenta-prezioa (PSP):** saltzaileak jartzen duen prezioa da, eta fabrikatzaileak edo hornitzaileak gomendaturikoa baino merkeagoa izan daiteke.
- **Salmenta-prezio gomendatua (SPG):** produktua saltzeko hornitzaileak txikizkarietara gomendatzen dien prezioa da.
- **Soldata gordina:** dagozkion atxikipean (PFEZa, adibidez) eta Gizarte Segurantzako kotizazioak egin aurreko diru guztia da.
- **Soldata garbia:** deskontu horiek aplikatu ostean kobratzen den dirua da.
- **Ustiapen-kontua:** negozioak denboraldi batean izan duen bilakaera adierazten duen kontabilitate-dokumentua. Ekitaldiaren azken emaitza da, lortutako diru-sarrerak jasandako gastuekin alderatu ondoren.